

Egun on, Sebas!

Nire izena Esti da, Gasteizkoa naiz eta 31 urte ditut.

Zure saioa entzuten hasi nintzen nire lagun baten gomendioagatik. Eskerrak eman nahi dizkizut programarengatik, oso interesgarria eta erabilgarria iruditzen zaidalako.

Hona hemen nire arazoa: nire lanagatik denbora asko ematen dut etxetik kanpo eta, etxera heltzerakoan, alferkeria ematen dit txukuntzeak eta garbitzeak; gainera, etxe txiki batean bizi naiz eta ez daukat leku asko gauza guztiak gordetzeko.

Denboraldi honetan, pentsatu dut aldaketa bat behar dudala; hori dela eta, nire partez boluntatea jarriko dut eta, egunero, 30 minutu eskainiko dizkiot garbitzeari.

Txukuntzeari dagokionez; zer egin nezake gauzak txukunago izateko? Armairu handi bat daukat, baina gauzaz beteta dago eta, irekitzen dudanean, ez dakit nondik hasi. Zer uste duzu egin beharko nukeela?

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizut nire arazoa kontuan hartzeagatik (saiatuko naiz zure aholkuak jarraitzen) eta zure programan parte har dezakedalako.

Agur,

Esti